V.1.– SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN ALORREKO KOORDINAZIOA, OBRAK GAUZATU BITARTEAN.

1.– Obra gauzatu bitartean segurtasunaren eta osasunaren alorreko koordinazio-funtzioak egitea xedetzat duten kontratuetako betebehar tekniko berezien agiriak ezarri egingo du derrigorrezkoa dela obran koordinazio horren ardura duen pertsona egotea. Bertan izan beharko den gutxieneko ordu-kopurua agiri bakoitzean zehaztuko da, obra bakoitzaren ezaugarriak gorabehera.

Obrak, ezaugarriak direla-eta, Segurtasunari Buruzko Azterlana idaztea beharrezkoa badu, obra gauzatzearen segurtasunaren koordinatzaileak obran egin beharko duen denbora aipatutako azterlanean segurtasunaren koordinatzaile horrek proiektu-fasean adierazitakoa izango da (horretarako, proiektua lantzeko betebehar teknikoek eskakizun hori jaso beharko dute).

Halaber, obra gauzatu bitartean segurtasunaren eta osasunaren alorreko koordinatzailea izango dena kontratatzeko egiten den betebehar teknikoen agiriak hurrengo betebeharrak jasoko ditu koordinatzailearentzat: Eraikuntza-lanetako Segurtasunaren eta Osasunaren Alorreko Gutxieneko Xedapenei buruzko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoa betetzea; Enpresa-jarduerak Koordinatzearen Alo-

4.– Las empresas beneficiarias de la reserva deben cumplir los requisitos establecidos en la legislación aplicable y su finalidad o actividad, de acuerdo con sus normas reguladoras, estatutos o reglas fundacionales, deberá estar relacionada directamente con el objeto del contrato.

Las entidades que quieran ser contratadas en cumplimiento de la reserva mencionada deberán encontrarse inscritas en el Registro de Contratistas regulado por la Orden de 4 de febrero de 1998 del Departamento de Hacienda y Administración Pública, y, según corresponda, en el Registro de Centros Especiales de Empleo contemplado en el Real Decreto 2273/1985, de 4 de diciembre, o en el Registro de Empresas de Inserción regulado por el Decreto 305/2000, de 26 de diciembre.

6.– Únicamente podrá justificarse el incumplimiento del indicado porcentaje de reserva en la imposibilidad legal de aplicar la figura del contrato menor o del procedimiento negociado por razón de la cuantía en el señalado volumen de contratación, en la falta de presentación de ofertas aceptables en los expedientes en que se solicitaron, o en la no inscripción en el Registro de Contratistas de empresas que cumplan los requisitos y adecuación al objeto contractual reservable.

V

ESPECIFICACIONES TÉCNICAS

(Pliego de prescripciones técnicas particulares)

V.1.– LA COORDINACIÓN EN MATERIA DE SEGURIDAD Y SALUD DURANTE LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS.

1.– El pliego de prescripciones técnicas particulares de los contratos que tienen por objeto las funciones de coordinación en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra, establecerán la obligación de presencia en obra de la persona encargada de dicha coordinación en un número mínimo de horas que será expresamente fijado en cada pliego en función de las características de cada obra.

En el caso de que la obra, por sus características, conlleve la redacción de Estudio de Seguridad, el tiempo de permanencia en obra del coordinador o de la coordinadora de seguridad en ejecución de la obra será propuesto por el coordinador o coordinadora de seguridad en fase de proyecto en el citado Estudio (a tal efecto, las prescripciones técnicas para la elaboración del proyecto contemplarán dicha exigencia).

Así mismo, el pliego de prescripciones técnicas para la contratación del coordinador o de la coordinadora contemplará la obligación de la coordinadora o del coordinador en materia de seguridad y de salud durante la ejecución de la obra, de cumplir lo establecido en el artículo 9 del Real Decreto 1627/1997 de 24 de octubre sobre disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, de realizar las funciones

rreko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuaren 14. artikuluan aurreikusitako funtzioak egitea; obran gertatzen diren lan-istripu guztiak ikertzea, enpresa bakoitzak hori egiteko duen betebeharraren kaltetan izan gabe; kontratazio-organoari jazotako istripuen nahiz egindako ikerketaren berri ematea, eta obran jazotako lan-istripuen kontrol estatistikoa egitea.

2.– Agiriak ezarri egingo du koordinatzaileak goian aipatutako gutxienekoarekin obran agertu beharko duela nabarmenki. Halaber, enpresa nagusiko segurtasunaren eta osasunaren alorreko koordinatzaileak eta arduradunak beren jarduerak planifikatuko dituzte, bietako bat beti bertan egongo dela bermatze aldera.

V.2.– BESTE BETEBEHAR TEKNIKO BATZUK.

1.– Kontratazio-organoek kontratu guztien betebehar teknikoen agirian sartuko dituzte enpresa kontratistari, bai eskaintza lantzerakoan, bai kontratua gauzatzerakoan, derrigorrez eskatu behar zaizkiola uste den produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri teknikoak. Ezaugarri tekniko horien artean, adierazitako baldintzetan, eskatzen den produktuaren edo zerbitzuaren alderdi teknikoak jasoko dira, V. epigrafe honen hurrengo ataletan aipaturikoak horiek. Hala eta guztiz ere, kontratazio-prozedura hasten bada eta ezerezean geratzen bada jarraibide honetan jasotako betebehar teknikoak betetzen dituzten eskaintzak aurkeztu ez izanagatik, eta horiek legeak edo erregelamenduak jarritako arautik eratorritakoak baino jarraibide honen aplikaziotik sortutako agiritik eratorritakoak badira, aukera dago prozedura berriro iragartzeko prozedura zehatz horretan kontratua esleitzea galarazi duten eta jarraibide honetatik eratorritakoak diren betebehar teknikoak kanpo utziz.

Betebehar teknikoak kontratuen legediak betebehar horietarako jarritako mugak zorrozki aintzat hartuz landuko dira, eta, batez ere, diskriminazio ezeko eta kontratuaren xedeari edo gauzatzeko moduari egokitzearen printzipioei jarraiki.

2.– Edonola ere, horniduretan eta kasuan kasuko elementuak behar dituzten gainerako kontratuetan, hurrengo betebehar teknikoak betetzea eskatuko da:

a) Turismo motako ibilgailuak, kontsumo baxukoak eta $CO_2$ isurketa gutxikoak (energia-eraginkortasuna eta isurketak gr $CO_2$/km modura adierazita; gutxieneko ibilbide baliokidea: B). Salbuespena ibilgailu bereziena litzateke, salbuespen hori justifikatzea posible bada.

b) Autobusen eta bideak garbitzeko ibilgailuen kasuan, beharrezkoa izango da partikula-iragazkia instalatzea.

c) Eraikinen diseinua, eraikuntza edo birgaitzea kontratatzen den kasu zehatzean, derrigorrezkoa izango

previstas en el artículo 14 del Real Decreto 171/2004 de 30 de enero en materia de coordinación de actividades empresariales, de investigar todos los accidentes de trabajo que sucedan en la obra, sin perjuicio de la obligación de cada empresa de llevarla a cabo, de notificar al órgano de la contratación tanto los accidentes producidos y la investigación realizada, así como, la de llevar a cabo un control estadístico de los accidentes de trabajo que se producen en la obra,

2.– El pliego contemplará la obligación de la coordinadora o coordinador de tener una presencia extensa en la obra con el mínimo arriba mencionado, así como que la persona coordinadora y la persona responsable de seguridad y salud de la empresa principal planificarán su actividad de forma que se garantice la presencia permanente de una de ellas.

V.2.– OTRAS ESPECIFICACIONES TÉCNICAS.

1.– Los órganos de contratación incluirán en el pliego de prescripciones técnicas de todos los contratos las características técnicas del producto o servicio que consideren que deben exigirse con carácter obligatorio a la empresa contratista, tanto en la elaboración de su oferta como en la ejecución del contrato. Entre dichas características técnicas se incluirán, en los términos que se señalan, los aspectos técnicos del producto o servicio demandado, mencionados en los apartados siguientes de este epígrafe V. No obstante, en el caso de que iniciado un procedimiento de contratación éste resultara desierto por ausencia de ofertas que cumplan las especificaciones técnicas que, sin venir exigidas por norma legal o reglamentaria, han sido contempladas en el pliego por aplicación de esta Instrucción, podrá volverse a convocar el procedimiento omitiendo las especificaciones técnicas derivadas de esta Instrucción que se han manifestado en ese concreto procedimiento impeditivas de la adjudicación del contrato.

La elaboración de las especificaciones técnicas se realizará con rigurosa observancia de los límites que para dichas especificaciones establece la legislación de contratos y, especialmente, de los principios de no discriminación y adecuación al objeto contractual o a su modo de ejecución.

2.– En todo caso, en los suministros y otros contratos que requieran los elementos a que se refieren, se exigirán las siguientes características técnicas:

a) Vehículos tipo turismo de bajo consumo y bajas emisiones de $CO_2$ (eficiencia energética y emisiones expresadas en gr $CO_2$/km recorrido equivalente mínimo B), excepto para el caso de vehículos especiales donde se pueda justificar dicha excepción.

b) En el caso de autobuses y de vehículos de limpieza viaria se requerirá la instalación de filtros de partículas.

c) Para el caso concreto de contratación del diseño, construcción o rehabilitación de edificios, será de obli-

da iraunkortasun-irizpideak eta irizpide bioklimatikoak aintzat hartzea.

d) Paperaren % 100a klorotik kanpo egongo da, eta % 80a gutxienez birziklatutako papera izango da. Gainera, birziklatutakoa ez den paperaren zuntzak baso-ustiategi iraunkorretatik eratorritakoak izango dira.

e) Altzarien kasuan, beharrezkoa izango da baso-ustiategi iraunkorretik etorritakoa delako ziurtagiria duen egur naturala erabiltzea, formaldehido-isurketa baxuko partikula-taulak erabiltzea bezalaxe (gutxienez P2, NTP 466 arauaren pean (Prebentzioko Ohar Teknikoa): Airearen kalitatea).

3.– Zerbitzuaren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean, kontratuetako betebehar teknikoetan hurrengoak bilduko dira:

– Kontratua gauzatu bitarte erabiltzen diren euskarri guztietan, kontratistek eta azpikontratistek sexismorik gabeko hizkuntza eta irudiak erabili beharko dituzte.

– Enpresa esleipendunak azterketa bereizia egin beharko du kontratuaren eremuan emakumeek eta gizonek bizi duten egoeraren gainean, eta, desberdintasunak sumatuko balira, desberdintasun horiek zuzentzera bideratutako neurri-proposamenak egin beharko lituzke.

– Esleipendunak ebaluaziorako adierazleak eta mekanismoak landu beharko ditu. Horrela, behin kontratua amaituta, emakumeengan eta gizonengan benetan izandako inpaktua aztertu ahalko da, berdintasuneranzko bidean benetan aurrera egite aldera.

– Kontratua gauzatzez amaitzean, sexuaren arabera zehaztutako adierazle eta datuen txostena aurkeztu beharko da, kontrataturiko zerbitzuen erabiltzaileak edo onuradunak eta kontratua gauzatu duen lantaldeko pertsonak zenbat izan diren nahiz berdintasunerako hartutako neurrien edukia eta horien inpaktua edo eragina zein izan den argituz.

4.– Gauzatzeak prestakuntza-ikastaroak edo -jarduerak egitea ekartzen dituen kontratuetan, kontratuaren betebehar teknikoek genero-ikuspegia eranstea kontuan izango dute, bai diseinuan, bai gauzatzerakoan, eta, hala badagokio, baita prestakuntza-ikastaroaren edo –jardueraren barreiapenean ere. Horretarako, zera joko da prestakuntzan genero-ikuspegia eranstea bezala:

– Prestakuntza-beharren diagnostikoan eta prestakuntza-ekintzak hedatzeko bideak zehazterakoan, kontuan izango dira emakumeen eta gizonen behar eta interes ezberdinak.

– Neurriak hartuko dira, irakasleen nahiz ikasleen artean bi sexuetako pertsonen ordezkaritza orekatua egon dadin, edo, gutxienez, prestakuntza-jarduerak heldutako eremuan duten ordezkaritzarekiko proportzioa gorde dadin.

– Ekintza positiboko neurriak hartuko dira, emakumeei parte-hartzea errazteko ordezkaritza eskasa duten

gado cumplimiento el tener en cuenta criterios de sostenibilidad y bioclimáticos.

d) El 100% del papel será totalmente libre de cloro y como mínimo un 80% de papel reciclado. Además, las fibras del papel no reciclado procederán de explotaciones forestales sostenibles.

e) En el caso de mobiliario se requerirá madera natural con certificado de explotación forestal sostenible y tableros de partículas con bajas emisiones de formaldehído (mínimo P2, bajo la norma NTP 466 (Nota Técnica de Prevención): Calidad del aire).

3.– En aquellos contratos en los que las características de la prestación sean adecuadas para ello, se contemplará en las especificaciones técnicas, lo siguiente:

– En todos aquellos soportes que se produzcan durante la ejecución del contrato, las empresas contratistas y subcontratistas deberán hacer un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes.

– La realización por la empresa adjudicataria de un análisis diferenciado de la situación de mujeres y hombres en el ámbito al que se refiere el contrato y en el caso de detectarse desigualdades la elaboración de propuestas de medidas dirigidas a corregir las desigualdades.

– La elaboración por la adjudicataria de indicadores y mecanismos de evaluación para que una vez ejecutado el contrato se pueda analizar su impacto real en mujeres y hombres y el avance efectivo hacia la igualdad.

– La presentación al final de la ejecución del contrato de un informe con indicadores y datos desglosados por sexo del número de personas usuarias o beneficiarias de las prestaciones contratadas, de la plantilla que ha ejecutado el contrato, así como del contenido de las medidas de igualdad que se hubieran adoptado y de su impacto o incidencia.

4.– En aquellos contratos cuya ejecución conlleve la realización de cursos o actividades de formación, las especificaciones técnicas del contrato contemplarán la incorporación de la perspectiva de género tanto en el diseño como en la ejecución y, en su caso, en la difusión del curso o actividad formativa. A tal efecto se considera integración de la perspectiva de género en la formación lo siguiente:

– En el diagnóstico de las necesidades de formación y a la hora de determinar los canales de difusión de la acción formativa se tengan en cuenta las diferentes necesidades e intereses de mujeres y hombres.

– Se adopten medidas para que, tanto entre el profesorado como entre el alumnado, exista una representación equilibrada de personas de ambos sexos o al menos proporcional a su representación en el ámbito al que se refiere la acción formativa.

– Se adopten medidas de acción positiva para facilitar la participación de mujeres en aquellas acciones

eremuei buruzko prestakuntza-jarduera horietan nahiz sustapen profesionalari zuzenean zuzendutako horietan.

– Hala badagokio, prestakuntza-jarduerak heldutako eremuan emakumeek eta gizonek bizi duten egoeraren alderdi bereizleak sartuko dira prestakuntzaren edukietan.

– Prestakuntza-ekintzarako lantzen diren materialetan, sexismorik gabe erabiliko dira hizkuntza eta irudiak.

– Neurriak hartuko dira prestakuntza-ekintzan parte hartzen dutenek aukera izan dezaten bertaratzea eta erantzukizun pertsonalak eta familiarrak bateratzeko, adibidez prestakuntza lanorduetan ematea edo mendeko pertsonak zaintzeko zerbitzua jartzea prestakuntza ematen den bitartean.

– Kasu bakoitzean prestakuntza-ekintza ebaluatzeko ezartzen den sistematik eratorritako emaitzak sexuaren arabera aztertuko dira, neurri zuzentzaileak hartzea justifika dezaketen aldeak topatze aldera.

5.– Halaber, edozein kontratutan betebehar teknikoak lantzeko, prestazioaren eskatzaile den zerbitzuak V. epigrafe honetako hurrengo ataletan aipatzen diren alderdiak kontratuaren xedean daudela eta hari egokitzen zaizkiola aztertuko du. Emaitza baiezkoa bada, betebehar tekniko berezien agirian zehaztapen tekniko zehatza jasoko da; bestela, emaitza ezezkoa bada, alderdi horiek ez sartzea justifikatu beharko da espedientean.

V.3.– IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA DISEINUA PERTSONA GUZTIENTZAKO.

Betebehar teknikoak pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko irizpideak ahal den neurrian kontuan hartuz definituko dira, Pertsona Ezgaituen Aukera-berdintasunari, Diskriminazio Ezari eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko abenduaren 2ko 51/2003 Legeak horiek zehazten dituen moduari jarraiki. Eta, kontratuaren xedeak ingurumena kaltetzen edo kalte dezakeen guztietan, irisgarritasun-irizpideak eta ingurumena babestekoak aplikatuko dira, Kutsadura Prebenitzeari eta Kontrol Integratua Egiteari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan hurrenez hurren arautatako definizio eta printzipioekin bat etorriz.

V. 4.– ETIKETA EKOLOGIKOAK.

1.– Erositako produktu edo zerbitzuak etiketa ekologikoren batekin ziurtaturik egotea ezin eska badaiteke ere, ISO 14024 arauaren araberako I motako etiketa ekologikoa sortua duten produktu edo zerbitzuen betebehar teknikoak zehazterakoan, kontratazio-organoek etiketa horiek emateko kontuan hartutako teknika nagusien ezaugarriak sartuko dituzte betebehar tekniko horietan, betiere, ezaugarri horiek zerikusirik badute kontratuaren xedearekin.

formativas referidas a ámbitos en los que se encuentren infrarrepresentadas, así como en aquéllas más directamente dirigidas a la promoción profesional.

– Se incluyan, en su caso, en los contenidos formativos los aspectos diferenciales con relación a la situación de mujeres y hombres en el ámbito al que se refiere la acción formativa.

– Se realice un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en los materiales que se elaboren con ocasión de la acción formativa.

– Se articulen medidas para facilitar que quienes participen en la acción formativa puedan conciliar la asistencia a la misma con sus responsabilidades personales y familiares, tales como la realización de la formación en horario laboral o el establecimiento de servicios de cuidado a personas dependientes mientras la misma se desarrolla.

– Se analicen en función del sexo los resultados derivados del sistema de evaluación de la acción formativa que en su caso se establezca, con el fin detectar posibles diferencias que justifiquen la adopción de medidas correctoras.

5.– Así mismo, para la elaboración de las especificaciones técnicas de cualquier contrato, el servicio demandante de la prestación analizará la existencia y adecuación al objeto contractual de los aspectos mencionados en los siguientes apartados de este epígrafe V, incluyéndose en el pliego de prescripciones técnicas particulares la concreta especificación técnica en caso positivo, o justificándose en el expediente la no incorporación de dichos aspectos en caso negativo.

V.3.– ACCESIBILIDAD UNIVERSAL Y DISEÑO PARA TODAS LAS PERSONAS.

Las prescripciones técnicas se definirán, en la medida de lo posible, teniendo en cuenta criterios de accesibilidad universal y de diseño para todas las personas, tal como son definidos estos términos en la Ley 51/2003, de 2 de diciembre, de igualdad de oportunidades, no discriminación y accesibilidad universal de las personas con discapacidad. Y, siempre que el objeto del contrato afecte o pueda afectar al medio ambiente, aplicando criterios de sostenibilidad y protección ambiental, de acuerdo con las definiciones y principios regulados en los artículos 3 y 4, respectivamente, de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación.

V 4.– ETIQUETAS ECOLÓGICAS.

1.– Aun cuando no puede exigirse que los productos o servicios adquiridos estén certificados con alguna etiqueta ecológica, a la hora de definir las especificaciones técnicas de productos o servicios para los que exista creada una etiqueta ecológica tipo I según ISO 14024, los órganos de contratación incluirán en las especificaciones técnicas del contrato las características técnicas principales tenidas en cuenta para la concesión de dichas etiquetas, siempre que dichas características estén relacionadas con el objeto del contrato.

Etiketa ekologikoek alderdi bat baino gehiagori edo irizpide anitzei heltzen badiete, ez da etiketa ekologiko jakin bateko ezaugarri edo irizpide guztiak betetzea eskatuko, ezta kontratuaren xede ez diren enpresaren praktika orokorrarekin edo alderdi etikoekin edo antzekoekin zerikusia duten ezaugarriak betetzea edota kontratuen araudiak ezarritako betebehar teknikoekin bat ez datozenak betetzea eskatuko ere.

Adibide modura, ordenagailuak erosterakoan hurrengoa kontuan har daiteke: «Energia-kontsumoa, Energy Star Label edo antzekoren baten estandarren arabera».

Etiketa ekologikoa sortua duten produktu eta zerbitzuetako batzuk hurrengoak dira: garbiketa-produktuak, ordenagailuak, etxetresna elektrikoak, bonbillak, bero-bonbak, papera, zeramikak, ehungintzako produktuak, lubrifikatzaile mota batzuk, turismoko ostatu-zerbitzuak eta kanpinekoak.

2.– Kasu horietan, betebehar teknikoak betetzen direla etiketa ekologikoaren beraren bitartez egiazta daiteke, beste hainbat bideren artean. Hala eta guztiz ere, betetzea egiaztatzeko beste froga batzuk ere onartuko dira, adibidez onarturiko erakunde baten entsegu-txostenak edo enpresa fabrikatzailearen txosten teknikoa.

3.– Etiketa ekologikoen gainean informazio gehiago eskuratzeko, jarraibide honen aplikazio-eremuaren barruan kokatzen diren sailek, erakundeek eta entitateek laguntza eskatu ahalko diote Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzari, IHOBE sozietate publikoaren bitartez.

V.5.– INGURUMEN-EZAUGARRIAK HARTUKO DITUZTEN KLAUSULAK ERANTSIKO DITUZTEN ARAUAK, EGOKITASUN-DOKUMENTUAK, ZEHAZTAPEN TEKNIKO KOMUNA ETA ERREFERENTZIA TEKNIKOKO SISTEMAK.

1.– Betebehar teknikoen definizioa arauei, egokitasun-dokumentuei, zehaztapen tekniko komunei edo erreferentzia teknikoko sistemei aipamen eginez burutzen denean, kontratatu nahi diren produktu edo zerbitzuen ingurumen-ezaugarriak hartuko dituzten klausulak eranstearen alde egingo da ahal den heinean.

Adibide modura, inprimagailuei dagokienez, honakoa kontuan har daiteke: «Funtzionamendu-bermea birziklatutako paperarekin DIN 19309 edo antzekoren baten arabera».

2.– Ingurumen-ezaugarriak harrapatzen dituzten klausulak eransten dituzten arauen, egokitasun-dokumentuen, betebehar tekniko komunen edo erreferentzia teknikoko sistemen gainean informazio gehiago eskuratzeko, jarraibide honen aplikazio-eremuaren barruan kokatzen diren sailek, erakundeek eta entitateek laguntza eskatu ahalko diote Ingurumen eta Lurralde

En el caso de etiquetas ecológicas que se refieran a más de un aspecto o criterios múltiples no se exigirá que se cumplan todos las características o criterios de una etiqueta ecológica determinada, ni las características relacionadas con la práctica general de la empresa o con aspectos éticos o similares no referidos al objeto del contrato, o que no se ajusten a las normas que para las especificaciones técnicas establece la legislación de contratos.

A modo de ejemplo, en la adquisición de ordenadores puede contemplarse «Consumo energético según estándares del Energy Star label o equivalente».

Algunos de los productos y servicios para los que existe creada una etiqueta ecológica son los siguientes: productos de limpieza, ordenadores, electrodomésticos, bombillas, bombas de calor, papel, cerámicas, productos textiles, algunos tipos de lubricantes, servicios de alojamiento turístico y de camping.

2.– En estos casos, el cumplimiento de dichas especificaciones técnicas podrá ser acreditado, entre otros medios, por la posesión de la etiqueta ecológica, si bien, también se aceptarán otras pruebas de dicho cumplimiento, como los informes de ensayo de un organismo reconocido o un expediente técnico de la empresa fabricante.

3.– Para mayor información sobre etiquetas ecológicas los departamentos, organismos y entidades incluidas dentro del ámbito de aplicación de la presente Instrucción podrán solicitar la colaboración de la Viceconsejería de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, a través de su sociedad pública IHOBE.

V.5.– NORMAS, DOCUMENTOS DE IDONEIDAD, ESPECIFICACIÓN TÉCNICA COMÚN Y SISTEMAS DE REFERENCIA TÉCNICA QUE INCLUYAN CLÁUSULAS QUE ABARQUEN CARACTERÍSTICAS MEDIOAMBIENTALES.

1.– Cuando la definición de las especificaciones técnicas se realice mediante referencia a normas, documentos de idoneidad, especificaciones técnicas comunes o sistemas de referencia técnica, se optará -si es posible- por las que incluyan cláusulas que abarquen características medioambientales de los productos o servicios que se desea contratar.

A modo de ejemplo, en referencia a impresoras puede contemplarse «Garantía de funcionamiento con papel reciclado según DIN 19309 o equivalente.»

2.– Para mayor información sobre normas, documentos de idoneidad, especificaciones técnicas comunes o sistemas de referencia técnica que incluyan cláusulas que abarquen características medioambientales, los departamentos, organismos y entidades incluidas dentro del ámbito de aplicación de la presente Instrucción podrán solicitar la colaboración de la Viceconsejería de

Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzari, IHOBE sozietate publikoaren bitartez.

V.6.– PRODUKTUAK EKOIZTEKO PROZEDURAK ETA METODOAK.

1.– Kontratuaren xedeak horrelakorik ahalbidetzen duenean, kontrataturiko zerbitzua edo obra ematerako-an hornitutako edo erabilitako produktuaren fabrikazioarekin zerikusia duten edo proiektaturiko diseinuan erantsi behar den ingurumeneko eta/edo gizarte- eta lan-osasuneko betebehar teknikoak erantsiko dira, betiere, ikusi ez arren betebehar horiek produktuaren tekniken ezaugarrietan laguntzen badute.

Horrela, produktua berariazko material batean egitea sartu ahalko da (adibidez: kudeaketa iraunkorreko basoustiategietatik etorritako egurra) edo, bestela, edukian birziklatutako gutxieneko material-portzentajea izatea. Halaber, erabilitako materialak edo substantzia kimikoak gizarteko eta laneko segurtasun eta osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak ez izatea adierazi ahalko da, ahal den neurrian gizarteko eta laneko segurtasun eta osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak diren eta kasuan kasuko produktuak izan beharko ez dituen substantzien zerrenda eginez.

2.– Horrelako kasuetan, betebehar tekniko horiek betetzen direla hurrengo moduen bitartez egiaztatu ahalko da: ISO 14024 arauaren araberako I motako etiketa ekologikoa izatea; autodeklarazioa aurkeztuz (14024 ISO arauaren II motako etiketa); UNE 150301:2003 Araua edukita diseinu- eta garapen-prozesuaren ingurumen-kudeaketan (Ekodiseinua) edo produktuaren ingurumen-aitorpena izanda (ISO 14024 arauaren III motako etiketa). Horretarako, beharrezkoa izango da irizpide horiek ekoetiketen betebehar izatea edo II eta III motako etiketetan eta Ekodiseinuko edo antzeko UNE 150301 delakoan berariaz bilduta egotea. Halaber, betebehar teknikoak betetzen direla egiaztatzeko onartzen den beste edozein bide erabil daiteke (enpresa lizitatzailearekin zerikusirik ez duen pertsonaren txostenteknikoaren bitartez, adibidez).

Gizarteko eta laneko segurtasunerako eta osasunerako arriskutsuak diren substantziak ez egotea onartzen den beste edozein bide erabilita egiaztatu ahalko da. Eragin horietarako, besteak beste, onartzen diren bideak honakoak dira: etiketaren edukia, ontziarena, eta/edo substantzia eta/edo prestakin arriskutsuen segurtasun-fitxa, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Araudi horren barruan sartuko lirateke honakoak, besteak beste: Zenbait Substantziaren eta Prestakin Arriskutsuen Merkaturatze- eta Erabilera-mugei buruzko azaroaren 10eko 1406/1989 EDa (1989-11-20ko 278 zenbakiko BOE eta haren aldarazpenak); Substantzia Berrien Jakinarazpenaren, Sailkapenaren, Ontziratzearen eta Etiketen Erregelamenduaren martxoaren 10eko 363/1995 EDa; eta Prestakin Arriskutsuen Sailkapenari, Ontziratzeari eta Etiketei buruzko Erregelamenduaren otsailaren 28ko 255/2003 EDa.

Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, a través de su sociedad pública IHOBE.

V.6.– PROCEDIMIENTOS Y MÉTODOS DE PRODUCCIÓN DE LOS PRODUCTOS.

1.– Cuando el objeto contractual lo permita, se incluirán especificaciones técnicas medioambientales y/o de seguridad y salud social y laboral vinculadas con la fabricación del producto suministrado o utilizado en la prestación de los servicios u obra contratada, o que deba incluirse en el diseño proyectado, siempre que dichas especificaciones contribuyan a las características técnicas del producto aunque no sean visibles.

Así, podrá incluirse la realización del producto en un material específico (por ejemplo: madera procedente explotaciones forestales de gestión sostenible) o, si procede, que en su contenido exista un porcentaje mínimo de materia reciclada. También podrá indicarse que ninguno de los materiales o sustancias químicas empleadas sean perjudiciales para la seguridad y salud social o laboral y para el medio ambiente, indicando, si es posible, una relación de sustancias perjudiciales para la seguridad y salud socio-y laboral, y el medio ambiente que el producto no deberá contener.

2.– En estos casos, el cumplimiento de dichas especificaciones técnicas podrá ser acreditado por la posesión de una etiqueta ecológica tipo I según ISO 14024, por la presentación de una auto-declaración (etiqueta tipo II según ISO 14024), por la posesión de la Norma UNE 150301:2003 sobre gestión ambiental del proceso de diseño y desarrollo (Ecodiseño) o por la posesión de una declaración ambiental de producto (etiqueta tipo III según ISO 14024), siempre y cuando esos criterios formen parte de las especificaciones de las ecoetiquetas o estén específicamente recogidos en las etiquetas tipo II y III y en la norma UNE 150301 de Ecodiseño o equivalente. Asimismo, el cumplimiento de las especificaciones técnicas podrá acreditarse por cualquier otro medio admisible (informe técnico de persona independiente de la empresa licitadora, pe. ej.).

La ausencia de sustancias peligrosas para la seguridad y salud social y laboral podrá ser acreditada por cualquier medio admisible. A estos efectos se considera medio admisible, entre otros, el contenido de la etiqueta, envase y/o ficha de seguridad de las sustancia y/o preparados peligrosos, de acuerdo con la normativa de aplicación, entre otros, RD 1406/1989 de 10 de noviembre, relativo a limitaciones a la comercialización y usos de ciertas sustancias y preparados peligrosos BOE n.º 278, de 20-11 y sus modificaciones; el RD 363/1995 de 10 de marzo, Reglamento sobre notificación de sustancias nuevas, clasificación, envasado y etiquetado; y el RD 255/2003 de 28 de febrero, Reglamento sobre clasificación, envasado y etiquetado de preparados peligrosos.

3.– Jangela- edo garbiketa-zerbitzuak bezalakoak kontratatu behar direnean, kontratuaren xedearen definizioan ez bada produktu osoa definitzea erabaki ekologiaren ezaugarriarekin, aukera egongo da betebehar teknikoen artean produktu baten portzentaje ekologiko jakina eskatzeko edo zerbitzuan erabili beharreko produktu batzuk ingurumenarekiko errespetuzkoa den eran egin direla eskatzeko.

Adibide gisa, elikagaiei dagokienez honakoa kontuan har daiteke: «Ekoizpen ekologikoko elikagaiak (pestizida kimikoak eta ongarriak erabili gabe) 1991ko ekainaren 24ko 2092/91 EEC Regulation delakoaren eta 1804/99/ECaren arabera».

4.– Altzariak hornitzeko, obrako edo ekipamenduko kontratu baten kasuan, egurra erabiltzen bada, ezin da eskatu baso-ziurtagiri zehatz baten sisteman erregistraturik egotea, baina betebehar teknikoen artean sartu egingo da fabrikazio-prozesuan egur-mozketek ez gainditzea modu iraunkorrean eutsi daitezkeen mailak. Halaber, izurriteak kontrolatzeko metodoak erabiltzerakoan, produktu kimikoak ez erabiltzea eta gizarteko eta laneko segurtasunarekin eta osasunarekin eta ingurumenarekin errespetuzkoak diren sistemak erabiltzea eskatu ahalko da. Betebehar tekniko horiek betetzen direla frogatzeko edo egiaztatzeko bide gisa, betebehar horiek egiaztatzen dituen baso-ziurtagiriko sistema onartu ahalko da, FSC (Basoen Administrazio-kontseilua) edo PEFC (Europako Basoen ziurtagiria) adibidez. Hala eta guztiz ere, frogatzeko beste bide baliokideren bat ere onartu beharko da.

V.7.– INGURUMEN-KUDEAKETAKO NEURRIAK.

Hornidurazkoak ez diren eta ingurumena kalte dezaketen kontratuetarako, betebehar teknikoen agiriak ingurumen-kudeaketako neurri zehatzak jasoko ditu kontratua gauzatzerakoan aplikatzeko. Kontuan hartuko da aurrerago, VI.5 epigrafean, ezarritakoa.

VI

ENPRESA KONTRATISTAREN AUKERAKETA ETA AHALMEN ETA GAITASUN TEKNIKOKO EDO PROFESIONALEKO ESKAKIZUNAK

VI.1.– GIZARTEKO EDO INGURUMENEKO ARRAZOIAK DIRELA-ETA, KONTRATAZIO-DEBEKUETAN SARTZEN DIRENAK KANPO UZTEA.

Kontratazio-prozeduratik kanpo utziko dira legeak kontratazioan ezarritako debekuetan sartzen diren pertsona eta enpresak. Horien artean sartuko lirateke langileen eskubideen aurkako delituak egin dituztenak, ingurumenaren alorreko delituak egin dituztenak, laneratzearen eta aukera berdintasunaren eta ezgaitasunen bat duten pertsonen diskriminazio ezaren alorrean arau-hauste larria egiteagatik epai irmoa dutenak, edo gizartearen alorrean arau-hauste oso larria egin dutenak.

3.– En los casos de contratos de servicios tales como servicio de comedor o de limpieza, si en la definición del objeto del contrato no se ha optado por definir la totalidad del producto con la característica ecológica, podrá exigirse entre las especificaciones técnicas que se incluya un porcentaje determinado de un producto ecológico o que determinados productos a utilizar en el servicio se hayan producido de manera respetuosa con el medio ambiente.

A modo de ejemplo, en referencia a los alimentos puede contemplarse «Alimentos de producción ecológica (sin utilización de pesticidas químicos y fertilizantes) según EEC Regulation 2092/91 de 24 de junio del 1991 y 1804/99/EC.»

4.– En el caso de un contrato de suministro de mobiliario, de obra o de equipamientos, en el que se utilice madera, si bien no se puede exigir el registro en un sistema concreto de certificación forestal, se incluirán entre las especificaciones técnicas que en el proceso de fabricación la tala de madera no supere los niveles que se pueden sostener de forma permanente y que se utilicen métodos de control de plagas que no empleen productos químicos y que sean respetuosos con la seguridad y salud social y laboral y el medio ambiente. Como medio de prueba o acreditación de dichas especificaciones técnicas se podrá admitir un sistema de certificación forestal que acredite dichas características como el FSC (Consejo de Administración de los Bosques) o el PEFC (Certificado de Bosques Paneuropeo), pero también deberá aceptarse cualquier otro medio de prueba equivalente.

V.7.– MEDIDAS DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL.

Para los contratos, distintos de los de suministro, cuya ejecución pueda perjudicar el medioambiente, el pliego de prescripciones técnicas contendrá las concretas medidas de gestión medioambiental aplicables a la ejecución del contrato teniendo en cuenta lo previsto en el epígrafe VI.5 siguiente.

VI

SELECCIÓN DE LA EMPRESA CONTRATISTA Y REQUISITOS DE CAPACIDAD Y SOLVENCIA TÉCNICA O PROFESIONAL

VI.1.– EXCLUSIÓN DE QUIENES INCURRAN EN PROHIBICIONES DE CONTRATAR POR MOTIVOS DE ORDEN SOCIAL O MEDIOAMBIENTAL.

Se excluirán del procedimiento de contratación las personas y empresas que incurran en prohibición de contratar establecida por ley, entre ellas, las motivadas por delitos contra los derechos de las personas trabajadoras, por delitos relativos al medio ambiente, por sanción firme por infracción grave en materia de integración laboral y de igualdad de oportunidades y no discriminación de las personas con discapacidad, o por infracción muy grave en materia social, incluidas

Azken horren barruan sartzen dira laneko arriskuen prebentzioan egindako arau-hausteak, ingurumenaren alorrekoak edo emakume eta gizonen berdintasunerakoak.

VI.2.– KONTRATATZEKO DEBEKUAK EGOTEA, LANEKO ETA GIZARTEKO BETEBEHARRAK URRATZEAREKIN ZERIKUSIA IZATEAGATIK.

Kontratazio-organoek zuzenean aztertuko dute laneko betebeharrekin eta gizartekoekin zerikusia duten kontratatzeko debekuak badauden edo ez, kontratuen legediak horixe zehazten duen kasuetan. Kontratuen legedian adierazitakoarekin bat etorriz eta debekuaren berri izateko aldez aurretik aitorpena behar den kasuetan, kontratazio-organoek eta, orokorrean, gertaeraren berri duen edozein administrazio-organok horren berri emango dio organo eskudunari, hark, hala badagokio, aitorpen hori jaso dezan.

VI.3.– LANEKO ETA GIZARTEKO BETEBEHARRAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEA.

1.– Lanaren alorrean eskudun den Sailak beharrezko baliabideak jarriko ditu kontratazio publikoarekin lotura duten enpresek laneko eta gizarteko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko, batez ere ezgaitasunen bat duten pertsonak kontratatzearen, laneko arriskuen prebentzioaren eta lanpostu finkoen portzentajea mantentzearen gaietan.

2.– Gizartearen alorreko betebeharrak betetzen direla egiaztatzearen lanek, besteak beste, honakoa bete behar dute: plantillan 50 langile edo gehiago dituen enpresa kontratista edo azpikontratista orok betebeharra du ehuneko 2ko kopurua ezgaitasunen bat duten pertsonek beterikoa dela ziurtatzeko. Bestela, neurri alternatiboak hartzeko betebeharra dute, Ezgaituen Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38.1 artikuluarekin eta urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuarekin bat etorriz. Zenbaketa enpresaren plantilla osoaren gainean egiten da, lantoki-kopurua eta langileak enpresarekin uztartzeko lan-kontratazio mota edozein izanda ere. Aurreko eraginetarako kontuan hartzen den ezgaitasuna ehuneko 33an edo gainetik onarturikoa da.

3.– Obren kasuan, laneko arriskuen prebentzioaren eremuko betebeharrak betetzeari buruzko egiaztapenak, besteak beste, zera egiaztatuko du: enpresa kontratistak nahiz, horrelakorik badago, enpresa azpikontratistak urriaren 18ko 32/2006 Legeak eta abuztuaren 24ko 1109/2007 Errege Dekretuak gutxieneko langile finkoen inguruan ezarritako betekizunak betetzen dituztela.

las infracciones en materia de prevención de riesgos laborales, en materia medioambiental, o de igualdad de mujeres y hombres.

VI.2.– APRECIACIÓN DE LA EXISTENCIA DE PROHIBICIONES DE CONTRATAR RELACIONADAS CON EL INCUMPLIMIENTO DE OBLIGACIONES LABORALES Y DE CARÁCTER SOCIAL.

Los órganos de contratación apreciarán directamente la existencia de prohibiciones de contratar relacionadas con el incumplimiento de obligaciones laborales y de carácter social en los casos en que así lo disponga la legislación contractual. En los casos en los que, conforme a lo señalado en la legislación de contratos, para la apreciación de la prohibición sea necesaria una declaración previa, los órganos de contratación, y en general cualquier órgano administrativo que tenga conocimiento del hecho, darán traslado del mismo al órgano competente para la adopción, en su caso, de dicha declaración.

VI.3.– COMPROBACIÓN DEL CUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES LABORALES Y DE CARÁCTER SOCIAL.

1.– El Departamento competente en materia de empleo pondrá los medios necesarios para la comprobación del cumplimiento de las obligaciones laborales y sociales por las empresas vinculadas con la contratación pública, especialmente en materia de contratar personas con discapacidad, de prevención de riesgos laborales y de mantener un porcentaje de empleo fijo.

2.– La comprobación relativa al cumplimiento de las obligaciones de carácter social comprobará, entre otros aspectos, que toda empresa contratista o subcontratista que cuente con 50 o más personas trabajadoras en plantilla cumple la obligación de que de entre ellas al menos el 2 por ciento sean personas con discapacidad, o bien la obligación de adoptar medidas alternativas de acuerdo con el artículo 38.1 de la Ley 13/1982, de 7 abril, de Integración Social de Minusválidos y el Real Decreto 27/2000, de 14 de enero. El cómputo se realiza sobre la plantilla total de la empresa cualquiera que sea el número de centros de trabajo y cualquiera que sea la forma de contratación laboral que vincule al personal con la empresa. La discapacidad computable a los efectos anteriores es la reconocida en un grado igual o superior al 33 por ciento.

3.– En el caso de obras, la comprobación relativa al cumplimiento de las obligaciones en el ámbito de la prevención de riesgos laborales comprobará, entre otros aspectos, que la empresa contratista, así como, en su caso, las empresas subcontratistas cumplen con los requisitos relativos al mínimo de personas trabajadoras fijas establecidos por la Ley 32/2006 de 18 de octubre y el Real Decreto 1109/2007 de 24 de agosto.

4.– Halaber, egiaztapen horrek arreta berezia emango dio enpresa esleipendunaren nahiz, horrelakorik badago, enpresa azpikontratistaren betebeharra betetzen dela egiaztatzeari; laneko arriskuen prebentzioa enpresaren kudeaketa orokorraren sisteman sartzeari, bai jarduera-multzoan, bai hierarkia-maila guztietan (horretarako Prebentzio-plana ezarri eta aplikatuz); laneko arriskuen prebentzioan indarrean dagoen legediak segurtasunaren eta osasunaren alorrean enpresei ezarritako gainerako betebeharrak betetzeari (azaroaren 8ko 31/1995 Legea; urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua; urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, eta abenduaren 12ko 54/2003 Legea eta maiatzaren 19ko 604/2006 Errege Dekretua, besteak beste). Betebehar horien artean Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana izatea (31/1995 Legearen 16. art.), eta lanpostuarekin bat datorren prestakuntza ematea (31/1995 Legearen 19. art.) egongo lirateke, Azpikontratazioaren 32/2006 Legearen 10. artikuluan aurreikusitakoarekin batera.

VI.4.– ESPERIENTZIA, EZAGUTZAK ETA BALIABIDE TEKNIKOAK (Administrazio-baldintza berezien agiriaren azala).

